



Sozioekonomia Socioeconomía




46. Langabezia-tasa

Biztanle langabeen ehunekoa biztanle aktiboekin alderatuta; beharrezko joera lortzea da helburua.

46. Tasa de paro

Porcentaje de población parada respecto a la activa, siendo la tendencia deseable la disminución.

2018an erregistratutako langabeen kopurua Número de personas desempleadas registradas 2018 (a)	2018ko biztanle aktiboak Población activa 2018 (b)
$(\frac{a}{b}) \cdot 100$	
Langabezia-tasa: % 8,7 Tasa de paro: 8,7 %	



Iturria: Lanbide. Fuente: Lanbide.

2001. urtetik 2007ra arte, nahiko egonkor mantendu da langabezia-tasa, % 7aren inguruan. Joera hori eten egin zen 2008. urtean krisi ekonomikoaren ondorioz, eta areagotzen jarraitzen du, 2014ko amaieran zifra handienera helduaz, % 12,7. 2018ko abenduan, langabezia-tasa % 8,7 izan zen, urtetik urterako portzentajezko 0,7 puntu behera egin duelarik. 2017. urtean, langabezian zeuden pertsonak 8.323 ziren, 2018. urte bukaeran 7.678 direlarik, langabeen kopuruan urtetik urterako % 7,7ko jaitsiera suposatuz. Langabezia-tasa horrek 90eko hamarkadako amaierara eramaten gaitu. Gipuzkoako tasa baino txikiagoa da, % 9,1, baita EAE ko batez besteko tasa baino txikiagoa ere, 2018. urtean % 11,2an kokatu dena, eta Espainiakoaren batez bestekoa baino txikiagoa, epe berdinean populazio aktiboaren % 14,5a baitzegoen langabezian.

De 2001 a 2007, la tasa de paro se había venido mantenido relativamente estable en torno al 7 %. Esta tendencia se rompe en 2008 como consecuencia de la crisis económica, y ha ido incrementándose, alcanzando su máximo a finales de 2014, un 12,7 %. En diciembre de 2018, la tasa de paro fue del 8,7 %, representando un descenso interanual de 0,7 puntos porcentuales. En 2017, las personas en situación de desempleo eran 8.323, mientras que a finales de 2018 la cifra ha sido de 7.678, viniendo a representar un descenso interanual del 7,7 % en el número de personas desempleadas. Este índice de paro, que nos retrotrae a finales de la década de los 90, es inferior a la tasa de Gipuzkoa, 9,1 %, y a la de la CAPV, que a finales de 2018 se ha colocado en el 11,2 % y mucho menor a la media de España, ya que en el mismo periodo el paro afectaba a un 14,5 % de la población activa.




47. Emakumeen langabezia-tasa

Lan egiteko adinean dauden emakumezkoen aldean erregistratuta dauden emakume langabeen kopurua; beheranzko joera lortzea da helburua.

47. Tasa de paro femenino

Número de paradas registradas respecto a la totalidad de la población femenina en edad de trabajar, siendo la tendencia deseable la disminución.

2018an erregistratutako emakume langabeen kopurua Número de mujeres desempleadas registradas 2018 (a)	Emakume aktiboen kopurua 2018 Población femenina activa 2018 (b)
$(\frac{a}{b}) \cdot 100$	
Emakume langabezia-tasa: % 9,2	Tasa de paro femenino: 9,2 %



Iturria: Lanbide. Fuente: Lanbide.

Emakumeen langabezia-tasa langabezia-tasa orokorraren gainetik dago, baina azken urteetan ikus zitekeen nolabait ere parekatzen ari zirela gizonen eta emakumeen langabezia-tasak. 2014. urtean eta 2016. urterarte joera hau aldatu egin zen, desberdintasun handiagoa gertatuz. 2017. eta 2018. urteetan nolabait ere bi tasak parekatze joera dutela dirudi. 2018. urtean, % 9,2ra iritsi da emakumeen langabezia tasa, langabezia erregistratutako emakumeak 4.196 izan baitira, guztizko langabezia-tasa baino portzentajeko 0,6 puntu gehiago. 2014. urtetik 2016. urterarte gizon eta emakumeen artean erregistratutako aldea portzentajeko 2,8 eta 3,0 bitartean mantendu bazen, 2018. urtean portzentajeko 1,1 puntutara jaitsi da.

La tasa de paro femenino sigue estando por encima de la tasa de paro total, y aunque en los últimos años se venía observando una cierta convergencia entre las tasas de paro masculino y femenino, en 2014 y hasta 2016 cambió esta tendencia, dándose una mayor disparidad. En 2017 y 2018 se vuelve a observar cierta convergencia entre ambas tasas. En 2018, la tasa de paro femenino alcanza un 9,2 %, siendo 4.196 las mujeres desempleadas registradas, 0,6 puntos porcentuales por encima de la tasa de paro total. La diferencia registrada desde 2014 hasta 2016 entre hombres y mujeres estaba entre 2,8 y 3,0 puntos porcentuales, mientras que en 2018 esta diferencia ha descendido a 1,1 puntos porcentuales.



48. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa jasotzen duten familien tasa

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) prestazioa jasotzen duten familien kopurua, udalerriko familia-unitateekin alderatuta; beheranzko joera lortzea da helburua.


Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izaera ekonomikoa duen aldi baterako prestazioa da, eta horren helburua oinarritzko premiekin eta gizarteratzearekin loturiko gastuei aurre egiteko nahikoa diru-sarrerarik ez duten bizikidetz-unitateen oinarritzko premiak betetzea da.

48. Tasa de familias perceptoras de la prestación de Renta de Garantía de Ingresos

Relación de familias que perciben la prestación de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) sobre el total de unidades familiares del municipio, siendo la tendencia deseable la disminución.

La Renta de Garantía de Ingresos es una prestación periódica de naturaleza económica cuyo objetivo es cubrir las necesidades básicas de unidades de convivencia con ingresos insuficientes para hacer frente a los gastos asociados a las necesidades básicas y a la inclusión social.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa jasotzen duten familien kopurua 2018 Número de familias perceptoras de la prestación de Renta de Garantía de Ingresos 2018	(a)= 4.628	Familia-unitateen kopurua 2018 Número de unidades familiares 2018	(b)= 77.973
$(\frac{a}{b}) \cdot 100$			
Urteko bariazio-tasa: % 5,9		Tasa de familias perceptoras: 5,9 %	



Iturria: Lanbide; Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritza eta Informazioko Udal Unitatea.
Fuente: Lanbide; Dirección de Bienestar Social y Unidad Municipal de Información del Ayuntamiento de San Sebastián.

DBE jasotzen duten familia kopuruak % 8,5 egin du behera 2017. urtearekin alderatuta, prestazioa jasotzen duten familien tasa % 5,9ra jaitsi da. 2018. urtean tasa aurreko hiru urteetakoaren parekoa bada ere, 2008tik, krisiaren hasieratik, goranzkoa joera eteten dela dirudi, krisiak familia donostiarrren ekonomian duen eragin gogorra adierazten zuelarik. Espedienteen % 61 emakumeei dagozkie, 2017. urteko datu antzekoa eta 2014. urtean baino portzentajeko 4 puntu gehiago; % 39 gizonezkoei dagokie.

El número de familias perceptoras de RGI ha descendido en un 8,5 % con respecto a 2017, disminuyendo la tasa de familias perceptoras a un 5,9 %. Si bien la tasa es muy parecida a la de los tres años precedentes, parece romper la tendencia que, desde el inicio de la crisis en 2008, había venido siendo al aumento, mostrando el fuerte impacto sobre la economía de las familias donostiarras. El 61 % de los expedientes corresponde a mujeres, parecida proporción que en 2017 y cuatro puntos porcentuales superior a 2014, mientras que el 39 % corresponde a hombres.




49. 65 urtetik gorakoen gizarte arreta-tasa

Udaleko Gizarte-zerbitzuetako erregistroan dauden 65 urtetik gorako kopurua, hiriko 65 urtetik gorako kopuru osoaren gainean, joera desiragarria igoera izanik. Azkeneko urtean edo aurreko urteetan Udaleko Gizarte-zerbitzuetatik laguntzaren bat jaso izan duten pertsonak dira, eta 2018an udal-erregistroan erreferentziazko profesional batekin eutsi zaie, kasu bakoitzak eskatzen duen intentsitatearekin, egotzaren jarraipena egin duena. Hiru adin-tarte hartzen dira kontutan: 65 urtetik gorakoak, 75 urtetik gorakoak eta 85 urtetik gorakoak.

49. Tasa de atención social a personas mayores de 65 años

Número de personas mayores de 65 años en los registros de los Servicios Sociales municipales sobre el total de personas mayores de 65 años del municipio, siendo la tendencia deseable el aumento. Se trata de personas mayores que en el último año o en años anteriores han recibido alguna atención desde los Servicios Sociales municipales y en 2018 se mantienen en los registros municipales con un profesional de referencia que, con la intensidad que requiere cada caso, realiza el seguimiento de su situación. Se tienen en cuenta tres tramos de edad: personas mayores de 65 años, personas mayores de 75 años y personas mayores de 85 años.

Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten 65 urtetik gorako pertsona kopurua 2018 Número de personas mayores de 65 años atendidas por los Servicios Sociales 2018	(a)= 20.310	
65 urtetik gorako pertsona kopurua udalerrian 2018 Número de personas mayores de 65 años en el municipio 2018	(b)= 44.861	
Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten 75 urtetik gorako pertsona kopurua 2018 Número de personas mayores de 75 años atendidas por los Servicios Sociales 2018	(a)= 14.259	
75 urtetik gorako pertsona kopurua udalerrian 2018 Número de personas mayores de 75 años en el municipio 2018	(b)= 22.320	
Gizarte Zerbitzuen arreta jaso duten 85 urtetik gorako pertsona kopurua 2018 Número de personas mayores de 85 años atendidas por los Servicios Sociales 2018	(a)= 7.247	
85 urtetik gorako pertsona kopurua udalerrian 2018 Número de personas mayores de 85 años en el municipio 2018	(b)= 8.110	
(adin tarte bakoitzeko)	$\left(\frac{a}{b}\right) \cdot 100$	(para cada grupo de edad)




Iturria: Lanbide; Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritza eta Informazioko Udal Unitatea.
Fuente: Lanbide; Dirección de Bienestar Social y Unidad Municipal de Información del Ayuntamiento de San Sebastián.

Hiriko bizilagunen % 23,9k ditu 65 urte edo gehiago, eta 85 urtetik gorakoen pisu erlatiboa geroz eta handiagoa da. 65 urtetik gora 44.861 pertsona daude hirian; 22.320 pertsonen 75 eta 84 urte bitarte dute eta 8.110 pertsonen 85 urte baino gehiago.

El 23,9 % de la población del municipio tiene 65 años o más, siendo cada vez mayor el peso relativo de las personas mayores de 85 años. De las 44.861 personas mayores de 65 años, 22.320 personas tienen edades comprendidas entre 75 y 84 años y 8.110 personas son las que superan los 85 años.

2018an, udaleko Gizarte-zerbitzuek 65 urtetik gorako hiritarren % 45-i eskaini zioten arreta, intentsitate maila ezberdinarekin, guztira 20.310 pertsona. Arreta eskainitako taldearen adina altuagoa den heinean, estaldura-portzentaje hori ere hazi egiten da: 75 urtetik gorakoan artean biztanleen % 64ari eskaini zaio arreta, eta % 89ra arte igotzen da kopuru hori 85 urtetik gorakoan

Los Servicios Sociales, en 2018, tienen en sus registros y atienden con diferente nivel de intensidad al 45 % de la población mayor de 65 años, 20.310 personas. Este porcentaje de cobertura se incrementa cuanto mayor es la edad del grupo atendido: en el grupo de edad mayor de 75 años, las personas atendidas representan el 64 % de esta franja de población, ascendiendo al 89 % en las personas mayores de 85 años.



Hiru adin-tarteetan estaldura-tasek behera egin dute 2017. urtearekin alderatuz gero, 2015. urtean arreta-tasarik altuenak lortu zirelarik. Sexuaren arabera, emakumeen estaldura-tasa gizonezkoaren estaldura-tasaren gainetik dago beti, adin-tarte nagusienean aldea txikitzen delarik.

En los tres tramos de edad, las tasas de cobertura han descendido respecto a 2017, siendo 2015 el año en el que se alcanzaron las tasas de cobertura más elevadas de la serie analizada. Teniendo en cuenta la tasa de cobertura en función del sexo, la tasa de cobertura de las mujeres es siempre superior a la de los hombres, disminuyendo la diferencia en el grupo de mayor edad de las personas atendidas.



ADIN TXIKIKOEN BALIZKO BABESGABETASUNEZKO EGOEREN DETEKZIO GOIZTIARRA

Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Sailak, azkenaldi honetan, hainbat eratako programak garatu ditu adin txikikoen babesarekin lotuak. Adin txikikoen balizko babesgabetasunezko egoeren detekzio goiztiarra egitea da programa horietako baten helburua, prebentziozko esku-hartzea gogoan hartuta. Horrek esan nahi du gaitu egin behar direla profesionalki adin txikikoekin harreman zuzena eta iraunkorra duten pertsona guztiak.

2018an, Sailak zabaldu egin du haur-babesgabetasunaren alorrean detekzio eta arreta goiztiarraren lana, eta, horren ondorioz, 1.000tik gorakoa izan da programa honen bitartez arreta eman zaien adin txikikoen kopurua. % 57,5 mutilak izan dira, eta % 42,5 neskak. Datu hori azpimarratu beharrekoa da, esan nahi baitu adin txikiko gehiagori lagundu zaiela arreta goiztiarreko programetan babesgabetasun arin eta moderatuko programetan baino, zeinean 579 esku-hartze izan baitira, eta hori arrakasta argia da prebentzioaren ikuspuntutik.

Programak bi alderdi ditu: detekziorako prestakuntza gazteak joaten diren lekuetan, eta espazio horietako profesionali aholkua ematea esku-hartze goiztiarra bideratu ahal izateko, detekzioa egin den leku berean, eta han lan egiten duten profesionalekin elkarlanean.

Esku hartzeko espazioak era askotako eremuak dira: ikastetxeak, haurtzaindegia, kiroldegia, osasun-zentzok, gazte eta nerabeentzako udal-espazioak, edota Udaltzaingoa bera. Gogoan izan behar da adin txikikoen babesgabetasunari arreta emateko zerbitzua ez dela babesgabetasun horrek eragindako pertsonen eskaera esplizituz sortzen, eta kasu honetan funtsezkoa dela adin txikiko hauekin harreman zuzena duten pertsonak balizko babesgabetasun-egoerak detektatzeko ahalmena izatea, eta horregatik dira oso garrantzitsuak ematen diren prestakuntza eta aholkularitza.

DETECCIÓN PRECOZ DE POSIBLES SITUACIONES DE DESPROTECCIÓN DE MENORES

El Área de Acción Social del Ayuntamiento de San Sebastián viene desarrollando diferentes programas de prevención vinculados a la protección de menores. Uno de estos programas busca la detección precoz de posibles situaciones de desprotección de menores de cara a una intervención preventiva. Esto supone la capacitación de todas aquellas personas que profesionalmente están en contacto directo y permanente con menores.

En 2018, el Departamento ha ampliado el trabajo de detección y atención temprana en el ámbito de la desprotección infantil, por lo que el número de menores atendidos a través de este programa ha sido de más de 1.000. Un 57,5 % chicos y un 42,5 % chicas. Éste es un dato a subrayar, ya que supone haber atendido a más menores en programas de atención precoz que en programas de desprotección leve y moderada que han supuesto 579 intervenciones, lo cual es un claro éxito desde el punto de vista preventivo.

El programa tiene dos vertientes: formación para la detección en los ámbitos donde acuden jóvenes, y el asesoramiento a los y las profesionales de estos espacios para intervenir de manera precoz, en el mismo ámbito donde se hace la detección y con los y las profesionales que allí trabajan.

Los espacios de intervención alcanzan ámbitos muy diversos: centros escolares, guarderías, polideportivos, centros de salud, espacios municipales para jóvenes y adolescentes o la propia Guardia Municipal. Se debe tener en cuenta que la desprotección de menores no es un servicio que se genere por demanda explícita de las personas afectadas, siendo fundamental en este caso la capacidad de detección de posibles situaciones de desprotección por parte de las personas que tienen una relación directa con estos menores, de ahí la importancia de la formación y asesoramiento que se viene facilitando.



Trebakuntza-saioetan parte hartu duten profesionalen kopurari dagokionez, 2.418 pertsona izan dira (1.971 emakume eta 447 gizon).

Aholkularitza-eskariak prestakuntza-saioetan beretan egituratzen dira, prestakuntza-plangintzan txertatzen diren gai jakinen gisa, edota esku-hartze goiztiarreko kasu jakinei buruzko lan gisa.

El número de profesionales que han participado en las sesiones formativas ha sido de 2.418 personas (1.971 mujeres y 447 hombres).

Las demandas de asesoramiento, se articulan a través de las propias sesiones de formación como temas específicos que se introducen en el plan de formación, o bien, como trabajo sobre casos concretos con intervención precoz.

Esku-hartze goiztiarra izan duten adingabeen kopurua Nº de menores que han sido objeto de intervención precoz						
Adinak Edad	Mutilak Chicos	%	Neskak Chicas	%	Guztira Total	%
0-2	17	3	24	5,7	41	4
3-5	125	21,7	76	17,8	201	20
6-11	290	50,2	210	49,1	500	49,8
12-16	141	24,4	112	26,2	253	25,2
17-18	5	0,9	5	1,2	10	1
GUZTIRA TOTAL	578	57,5	427	42,5	1005	42,5

Informazio gehiago:

Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren urteko memoria, 2018

<https://www.donostia.eus/info/bienestarsocial/masinfo.nsf/vowebContenidosId/NT00000A7A?OpenDocument&idoma=eus&id=S525084&cat=Memoria&doc=D>

Más información:

Memoria de Bienestar Social 2018

<https://www.donostia.eus/info/bienestarsocial/masinfo.nsf/vowebContenidosId/NT00000A7A?OpenDocument&idoma=cas&id=S525084&cat=Memoria&doc=D>